XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4603

AGINDUA, 2011ko irailaren 1ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko kusku biko moluskuen ekoizpeneko guneen sailkapena ezartzen duena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 854/2004 (EE) Araudian –animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeko berariazko arauak ezartzen dituen horretan– xedatutakoarekin bat etorriz, agintaritza eskudunak bere aplikazio-eremuan sartutako espezieen ekoizpeneko eta berrezarpeneko guneak aitortu eta sailkatu beharko ditu, arau horretan aurreikusten diren hiru gune-kategorien arabera.

Agindu honek xedetzat du Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko moluskuen ekoizpeneko guneen aitorpena eta sailkapena ezartzea. Horretarako, aintzat hartu dira kuskubikoen ekoizpeneko guneetan aldian behin egiten diren azterketa eta laginketak.

C kategorian sailkatutako guneei dagokienez, ohartarazi beharra dago, berrezarpeneko gunerik ez dagoenez, debekatuta dagoela gune horietan moluskuak ateratzea.

Gainera, aipatutako azterketa horien ondorio gisa, agindu honek egoki irizten dio muskuilu espeziea (Mytilus edulis eta Mytilus galloprovincialis) ateratzearen inguruan dagoen debekua iraunarazteari.

Hori dena kontuan izanik, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko itsas guneen sailkapena ezartzea, uren kalitateari eta horrek akuikulturan eta itsaskien bilketan dituen ondorioei dagokienez, eta honako hauek Euskal Autonomia Erkidegoan moluskuak ekoizteko gune izendatzea:

Bigarrena.– Hondarribia (Bidasoako itsasadarra). Ikus I eta II eranskinak:

C guneko sailkapena: bokaletik aireportuaren puntalerainoko alde guztia; moluskuak ateratzea eta itsaskiak biltzea debekatuta geratzen dira.

Gune itxiaren sailkapena: moluskuak ekoizteko gune itxitzat aitortzen dira, eta moluskuok ateratzea debekatzen da:

– Aireportuaren puntaleko aldean, barrualderantz.

– Hondarribiako arrantza-portuan.

– Hondarribiako kirol-portuan.

– Beteranoen Dartsenan.

Hirugarrena.– Mundaka (Okako estuarioa). Ikus I. eta II. eranskinak:

B guneko sailkapena: Arketa azpigunea (bokaleko aldearen eskuineko ertza, Sandinderi uharteraino) eta Kanala azpigunea (Sandinderi uharteko eremua, Muruetako ontziolaraino). Bertan lortutako moluskuek arazketa-prozesu bat pasa beharko dute bizirik merkaturatu baino lehen.

C guneko sailkapena: bokaleko aldearen ezkerreko ertza (Portuondo), Sandinderi uharteraino; debekatuta geratzen da moluskuak ateratzea eta itsaskiak biltzea.

Gune itxiaren sailkapena: moluskuak ekoizteko gune itxitzat aitortzen dira, eta moluskuok ateratzea debekatzen da.

– Murueta ontziolatik urari goiti, Gernikaraino.

– Txatxarramendi uharteko zubipean.

– Mundakako portuan.

Laugarrena.– Plentzia (Butroeko estuarioa). Ikus I. eta II. eranskinak:

B guneko sailkapena: bokalaren eta Arrainolaren arteko aldea, Plentziako portua izan ezik. Alde horretan ateratako moluskuek arazketa-prozesu bat pasa beharko dute bizirik merkaturatu baino lehen.

Gune itxiaren sailkapena: moluskuak ekoizteko gune itxitzat aitortzen dira, eta moluskuok ateratzea debekatzen da:

– Plentziako portuan.

– Estuarioko barrualdean (Arrainolatik urari goiti hartzen da barrualdetzat).

Bosgarrena.– Agindu honetan ezartzen diren ekoizpeneko guneen sailkapenak honako espezie hauek ateratzeari eragiten dio:

– Ostra (Ostrea edulis, Crassostrea angulata eta Crassostrea gigas).

– Datila (Pharus legumen, Solen marginatus, Ensis ensis eta Ensis siliqua).

– Berberetxoa (Cerastoderma edule edo Cardium edulis).

– Txirla (Venerupis pollastra, Ruditapes edo Tapes pullastra, Venerupis decussata, Ruditapes edo Tapes decussata, Venerupis semidecussata, Tapes semidecussata edo Ruditapes philippinarum, Venerupis aurea eta Venerupis rhomboides).

– Txirla txikia (Venus striatula eta Chameles gallina).

Seigarrena.– Muskuilu espeziea (Mytilus edulis eta Mytilus galloprovincialis) ateratzea debekatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko uretan.

Zazpigarrena.– Kirol-arrantzaleek debekatuta dute bosgarren eta seigarren ebazpen-zatietan adierazitako espeziak ateratzea gune itxietan eta ebazpen honetan C gune gisa sailkatutakoetan.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ahalmena ematen zaio Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari agindu honetan ezarritakoa betetzeko behar diren neurriak har ditzan.


Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko auzietako salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 1a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I ERANSKINA


HONDARRIBIA
MUNDAKA
PLENTZIA
Sailkapena - Clasificación
ZONA B GUNEA
ZONA C GUNEA
ZONA CERRADA / GUNE ITXIA

II ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoan moluskuak ekoizteko izendatu diren gune eta azpiguneen mugak.

GAKOA	KOKAPENA	MUGAK	UTM ED-50 KOORDENATUAK	MOTA	ERREFERENTZIAZKO ESPEZIEA EDO ESPEZIE-TALDEAK
PAV1/01	HONDARRIBIA (BIDASOAKO ESTUARIOA)	BOKALETIK AIREPORTUAREN PUNTALERAINO, ESPAINIAKO LURRALDEAN DAGOEN GUNE OSOA HORTIK KANPO GERATZEN DA, ETA BERAZ GUNE ITXIA DA: AIREPORTUAREN PUNTALETIK BARRUALDERA DAGOEN GUNEA, HONDARRIBIAKO ARRANTZA-PORTUA, HONDARRIBIAKO KIROL-PORTUA ETA BETERANOEN DARTSENA.	(598185, 4805398) (599107, 4805081) (598711, 4802014) (598920, 4801970)	C	Txirla (*Venerupis pullastra*, *Ruditapes* pullastra edo *Tapes pullastra*, *Venerupis decussata*, *Ruditapes decussatus* edo *Tapes decussata*, *Venerupis semidecussata*, *Tapes* semidecussata edo *Ruditapes philippinarum*, *Venerupis aurea*, *Venerupis rhomboides*), Berberetxoa (*Cerastoderma edule*), Txirla txikia (*Chamelea gallina* eta *Venus striatula*), Datila (*Pharus legumen*, *Solen marginatus*, *Ensis ensis* eta *Ensis* siliqua), Ostra (*Ostrea edulis*, *Crassostrea angulata* eta *Crassostrea gigas*)
PAV1/02	MUNDAKA (OKAKO ESTUARIOA)	HORTIK KANPO GERATZEN DA, ETA BERAZ GUNE ITXIA DA: MURUETAKO ONTZIOLATIK UR GORA GERNIKARAINO, TXATXARRAMENDIKO UHARTEKO ZUBIAREN AZPIKO EREMUA ETA MUNDAKAKO PORTUA.			

GAKOA	KOKAPENA	MUGAK	UTM ED-50 KOORDENATUAK	MOTA	ERREFERENTZIAZKO ESPEZIEA EDO ESPEZIE-TALDEAK
	PAV1/02-1 ARKETAKO AZPIGUNEA	BOKALEKO ALDEAREN ESKUINEKO ERTZA, SANDINDERI UHARTERAINO	(524363, 4807179) (526110, 4806787) (525221, 4806164) (525787, 4804128)	B	*Txirla (Venerupis pullastra, Ruditapes pullastra edo Tapes pullastra, Venerupis decussata, Ruditapes decussatus edo Tapes decussata, Venerupis semidecussata, Tapes semidecussata edo Ruditapes philippinarum, Venerupis aurea, Venerupis rhomboides), Berberetxoa (Cerastoderma edule), Txirla txikia (Chamelea gallina eta Venus striatula), Datila (Pharus legumen, Solen marginatus, Ensis ensis eta Ensis siliqua),* Ostra (*Ostrea edulis, Crassostrea angulata* eta *Crassostrea gigas*)
	PAV1/02-2 PORTUONDOKO AZPIGUNEA	BOKALEKO ALDEAREN ESKERREKO ERTZA, SANDINDERI UHARTERAINO	(524363, 4807179) (526110, 4806787) (525221, 4806164) (525787, 4804128)	C	*Txirla (Venerupis pullastra, Ruditapes pullastra edo Tapes pullastra, Venerupis decussata, Ruditapes decussatus edo Tapes decussata, Venerupis semidecussata, Tapes semidecussata edo Ruditapes philippinarum, Venerupis aurea, Venerupis rhomboides), Berberetxoa (Cerastoderma edule), Txirla txikia (Chamelea gallina eta Venus striatula), Datila (Pharus legumen, Solen marginatus, Ensis ensis eta Ensis siliqua),* Ostra (Ostrea edulis, Crassostrea angulata eta Crassostrea gigas)
	PAV1/02-3 KANALAKO AZPIGUNEA	SANDINDERI UHARTETIK MURUETAKO ONTZIOLARAINO DAGOEN EREMUA	(525221, 4806164) (525787, 4804128) (525623, 4801716) (526774, 4801831)	B	Txirla (Venerupis pullastra, Ruditapes pullastra edo Tapes pullastra, Venerupis decussata, Ruditapes decussatus edo Tapes decussata, Venerupis semidecussata, Tapes semidecussata edo Ruditapes philippinarum, Venerupis aurea, Venerupis rhomboides), Berberetxoa (Cerastoderma edule), Txirla txikia (Chamelea gallina eta Venus striatula), Datila (Pharus legumen, Solen marginatus, Ensis ensis eta Ensis siliqua), Ostra (Ostrea edulis, Crassostrea angulata eta Crassostrea gigas)

GAKOA	KOKAPENA	MUGAK	UTM ED-50 KOORDENATUAK	MOTA	ERREFERENTZIAZKO ESPEZIEA EDO ESPEZIE-TALDEAK
PAV1/03	PLENTZIA (BUTROEKO ESTUARIOA)	BOKALEA ETA ARRAINOLA ARTEKO ALDEA HORTIK KANPO GERATZEN DA, ETA BERAZ GUNE ITXIA DA: PLENTZIAKO PORTUA ETA ESTUARIOKO BARRUALDEA, ARRAINOLATIK URETAN GORA.	(503407, 4807144) (503910, 4807448) (504838, 4804676) (504946, 4804767)	B	Txirla (Venerupis pullastra, Ruditapes pullastra edo Tapes pullastra, Venerupis decussata, Ruditapes decussatus edo Tapes decussata, Venerupis semidecussata, Tapes semidecussata edo Ruditapes philippinarum, Venerupis aurea, Venerupis rhomboides), Berberetxoa (Cerastoderma edule), Txirla txikia (Chamelea gallina eta Venus striatula), Datila (Pharus legumen, Solen marginatus, Ensis ensis eta Ensis siliqua), Ostra (Ostrea edulis, Crassostrea angulata eta Crassostrea gigas)